



Iraunkortasunaren aldeko Heziketa

2011-2012ko
eskola-kanpaina



sanpedrokoingurumen
heziketarakomuseoa

Iraunkortasunaren aldeko heziketa

Ikasleen bisitak. 2011-2012ko ikasturtea

Ingurumen Heziketarako Museoa Iruñeko Udalaren ekipamendua da. Horren helburua gizartearen eredu berri bat eraikitzen laguntzea da, iraunkortasunaren printzipioetan oinarrituta eta ingurumen heziketa baliatuz.

Museoan zenbait gune daude: **erakusketa iraunkorra**, **mintzaldi aretoa**, **lantegi**-ikasgelak eta soinua lantzeko espezializaturik dagoen **Akustikako Ikasgela Elkarreragilea**, Erakusketa iraunkorrek zortzi eremu ditu ardatz, gaika antolatuta: energia, funtsezko baliabideak (airea, ura eta lurzorua), bioaniztasuna, lurraldearen erabilera, kontsumoa eta hondakinak, mugikortasuna, zarata eta garapen iraunkorra.


Iraunkortasunaren aldeko Heziketa programa dugu Ingurumen Heziketarako Museoak duen jardun-ardatz nagusietako bat. Programa horretan, ingurumen-hezitzaileek zuzenduta, hainbat jarduera egiten dira, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Bigarren Hezkuntza, Batxilergo, Lanbide Heziketa nahiz Unibertsitateko ikasleekin, **gaztelaniaz eta euskaraz**.

Gaur egun, **20 bisita mota** eskaintzen ditu Museoak, zein bere zikloari egokituta; oraingo eskaintzan hainbat berrikuntza egin ditugu, **aurreko zortzi edizioetan** hartutako eskarmentuaren ondorioz.

Ekimen honek posible egiten du ikasle taldeek Museoa hezkuntza-ziklo guztietan bisitatzea, betiere bisita errepikatu gabe. Hartara, programa hau Ingurumen Heziketarako programa eten-gabea izan daiteke, Haur Hezkuntzatik DBHra eta Batxilergo edo Lanbide Heziketara bitarte.

Horretaz gain, joan den ikasturtetik programa berri bat proposatzen dugu: talde jakin batekin ikasturtean zehar zenbait bisita egiten ditugu, ingurumenari buruzko ezagutza gehiago lortu eta errespetuzko jarrerak beregana ditzan.

MUSEOKO ESKOLA KANPAINAKO JARDUERA GUZTIAK DOAN DIRA • ALDEZ AURRETIK IZENA EMAN BEHAR DA



IKASMATERIALAK:

Jarduera guztiak ikasmaterialaz horniturik daude, eta material horiek ikastetxeetara bidaltzen dira bisita egin aurretik. Komenigarria da material horiek bisita egin aurretik lantzea, jarduera emankorragoa eta asebetegarriagoa izan dadin.

Berrikuntzak:

Web quest

Aurtengo ikasturtean tresna didaktiko berri bat izanen dugu Museoan: Lehen Hezkuntzako 3. zikloko ikasleei zuzenduta (11-12 urte) bioaniztasunari buruzko Webquesta, Museoaren webgunean (www.museoambientalpamplona.com) erabilgarri dagoen aplikazio informatikoa. Webquest aplikazioak talde-lana eta teknologia berrien erabilera bateratzen ditu, eta ikasleendako tresna erakargarria da, kontzeptu berriei buruz pentsatzen ikas dezaten.

Telenatura dokumentalak

TeleNatura (Natura Babesteko eta Hedatzeko Nazioarteko Telebista Jaialdia, Nafarroako Unibertsitateko Komunikazio Fakultateak antolatua) dokumental-emanaldiak eskatzeko aukera dago, baliabide didaktiko osagarri gisa; horien bidez, Ingurumenari eta Iraunkortasunari loturiko beste gai batzuk ere landu daitezke.



TELENATURA DOKUMENTALEN EMANALDIAK

Iraupena: dokumental bakoitzak iraupen ezberdina du (ordu bat, gutxi gorabehera)

Parte-hartzaileen kopurua, gehienez: 65

Helburu orokorra: Ingurumenaren inguruko zenbait arazoren berri jasotzea. Jarrera kritikoa garatzea.

Jarduera: Nafarroako Unibertsitateko Komunikazio Fakultateak antolatutako TELENATURA – Natura Babesteko eta Hedatzeko Nazioarteko Telebista Jaialdiko filmen emanaldiak. Filmak urtero aldatzen dira. Museoan bertan eska dezakezue programa osoa, film bakoitzaren sinopsia barne.

Nori zuzendua: DBH, Batxilergo eta Lanbide Heziketa.



Lehen Hezkuntzako 3. zikloa

Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloak

IRAUNKORTASUNAREN ALDEKO GINKANA

Iraupena: Ordu bat

Parte-hartzaileen kopurua, gehienez: 30

Helburu orokorra: Gaitasunak eskuratzea, ingurumen-arazo larrienak gutxitzen lagutzeko.

Jarduera: Ginkana honetan hainbat gairi buruzko probak eginen ditugu, eta, horien bidez, ikasleek baliabideak erabiltzeko beste modu batzuk ikasiko dituzte Museoko erakusketa iraunkorrean: energia, airea, ura, zorua, bioaniztasuna eta paisaia.

HIRI IRAUNKOR BATEN ALDE: MUGIKORTASUNA

Iraupena: Ordu bat

Parte-hartzaileen kopurua, gehienez: 30

Helburu orokorra: Hirian mugitzeko dauden modu ezberdinei buruzko gogoeta egitea eta iraunkortasunaren aldeko ohiturak hartzea.

Jarduera: Jarduera hau taldeka egiten da. Talde bakoitzak hirian mugitzeko aukeretakoa bat hartuko du, eta horren bidez ikasleek garraibide bakoitzaren alde on eta txarrak ezagutuko dituzte, bai eta ingurumenean, segurtasunean eta gure osasunean dituzten eraginak ere.

SOINUA ZARATA BIHURTZEN DENEAN

Iraupena: Ordu 1 eta 30 minutu

Parte-hartzaileen kopurua, gehienez: 30

Helburu orokorra: Soinuaren eta zarataren arteko ezberdintasunak eta haien jatorria ezagutzea, eta gizakion jarduerak kutsadura akustikoan duten erantzukizuna aztertzea.

Jarduera: Hainbat jarduera izanen dira Akustikako Ikasgela Elkarreragilean, soinuaren eta zarataren arteko aldeak zentzumenen bidez ezagutzeko helburuz. Jarduera osatzeko, neurketa bat eginen da kanpoan, sonometroa erabilita.

EGUZKI-LABEA

Iraupena: Ordu 1 eta 30 minutu

Parte-hartzaileen kopurua, gehienez: 30

Helburu orokorra: Eguzki-energia termikoaren funtzionamendua modu praktikoan ikastea.

Jarduera: Eguzki-energiak baliatzen den labe bat egiteko lantegia, erabili eta botatzekoak diren materialak erabilita.

ARGA IBAIA EZAGUTUZ

Iraupena: 2 orduko 3 saio • **Parte-hartzaileen kopurua, gehienez:** 25

Helburu orokorra: Arga ibaiaren alderdi ezberdinak ezagutzea: haren historia, erabilerak, ingurune naturala, kontserbazio-egoera, kalitatea, kutsadura-motak... Gure esku ditugun praktika egokiak bultzatzea, ibaiaren zaintza eta kontserbazioa bultzatzeko.

Jarduera: Bi orduko hiru saio izanen dira talde bakoitzeko, ikasturte batean egitekoak. Horrela, ikasleek aukera izanen dute Arga ibaiari loturiko natura- eta kultura-ondarearekin arduratsu eta errespetuzkoak diren ezagutzak eta jarrerak sakonago jorratzeko.

Hiru saio horietan hainbat jarduera eginen ditugu, hala Museoa nola inguruko gune eta instalazioetan:

1. saioa • Ingurumen Heziketarako Museoa: Arga ibaia ezagutzea (haren historia, garrantzia, ibaiaren erabilerak...), mapak eta argazkiak interpretatuz eta ginkana bat eginuz. Ikasitakoa horma-irudi batean jasoko da.

2. saioa • Ingurumen Heziketarako Museoa – Runa parkea: Arga ibaia Iruñetik pasatzean duen bioaniztasuna eta haren kontserbazio egoera ezagutzea, Arga ibaiaren parkean barna ibilbide bat eta espezieak identifikatzeko jarduera bat eginuz. Uren kalitatea aztertzeko analisi erraz bat ere eginen dugu.

3. saioa • Ingurumen Heziketarako Museoa – Arantzadiko baratzeak: Arga ibaia gaur egun dituen erabilerak – batez ere nekazaritza dagozkionak – ezagutzea, Arantzadiko baratzeetara bisita gidatu bat eginuz. Parte-hartzaileek lanborantzako jardueraren bat egiten ahalko dute.



DBHko 1. zikloa DBHko 2. zikloa

Batxilergoa eta Lanbide Heziketa

ESKOLAKO AZTARNA EKOLOGIKOA

Iraupena: Ordu 1 eta 30 minutu
Parte-hartzaileen kopurua, gehienez: 30
Helburu orokorra: Ikasleei ikastetxeko baliabideak egoki erabiltzeko hainbat ohitura irakastea.
Jarduera: Etabaidatzeko eta parte hartzeko jarduera bat izanen da. Bertan, ikasleek energia-kontsumoko modu nagusiak jorratuko dituzte, eta ikastetxean kontsumo hori murrizten ikasiko dute.

KUTSADURA AKUSTIKOA

Iraupena: Ordu 1 eta 30 minutu
Parte-hartzaileen kopurua, gehienez: 30
Helburu orokorra: Gure inguruko giro akustikoaz jabetzea.
Jarduera: Akustikako Ikasgela Elkarreragilerako bisita. Bertan ezagutuko ditugu Iruñeko giro akustikoa eta zarata-iturri nagusiak eta horiek ekartzen dituzten ondorioak, bereziki gizakion osasunari eragiten diotenak.

ESKOLAKO AZTARNA EKOLOGIKOA

Iraupena: Ordu 1 eta 30 minutu
Parte-hartzaileen kopurua, gehienez: 30
Helburu orokorra: Ikasleei ikastetxeko baliabideak egoki erabiltzeko hainbat ohitura irakastea.
Jarduera: Etabaidatzeko eta parte hartzeko jarduera bat izanen da. Bertan, ikasleek energia-kontsumoko modu nagusiak jorratuko dituzte, eta ikastetxean kontsumo hori murrizten ikasiko dute.

INGURUKO SOINUAK

Iraupena: Ordu 1 eta 30 minutu
Parte-hartzaileen kopurua, gehienez: 30
Helburu orokorra: Sortzen ditugun eta inguratzen gaituzten soinuek gure eguneroko jardueretan eta osasunean duten garrantzia eta ondorioak ezagutzera ematea.
Jarduera: Akustikako Ikasgela Elkarreragilean soinua landuko dugu, ingurumenaren kalitatearen adierazle gisa. Jarduera bat egingen dugu hiriko zarata-mapekin, hiriko giro akustikoa interpretatzen ikasteko.

ETA ZURE AZTARNA EKOLOGIKOA, ZER?


Iraupena: Ordu 1 eta 30 minutu
Parte-hartzaileen kopurua, gehienez: 30
Helburu orokorra: Jarrera kritikoa garatzea ingurunean ondorio negatiboak sortzen dituzten gizakion jardueren aurrean.
Jarduera: Aztarna ekologikoa abiapuntu hartuta, Museoko zortzi erakusketa-aretoak ezagutuko ditugu, eta norbakoaren azturak garapen iraunkorra eskuratzeko duten garrantzia erakutsiko dugu.

GIRO AKUSTIKOA

Iraupena: Ordu 1 eta 30 minutu
Parte-hartzaileen kopurua, gehienez: 30
Helburu orokorra: Sortzen ditugun eta inguratzen gaituzten soinuek gure eguneroko jardueretan eta osasunean duten garrantzia eta ondorioak ezagutzera ematea.
Jarduera: Akustikako Ikasgela Elkarreragilean soinua landuko dugu, ingurumenaren kalitatearen adierazle gisa. Jarduera bat egingen dugu, hiriko zarata-mapekin, bertako giro akustikoa interpretatzen ikasteko eta gizakiok kutsadura-mota honetan zein ardura dugun ezagutzeko.

BISITA EZAZU MUSEOA

Iraupena: Ordu bat
Parte-hartzaileen kopurua, gehienez: 30
Helburu orokorra: Naturak eskaintzen dizkigun baliabide ezberdinak eta horiek nola erabiltzen ditugun ezagutzera. Garapen iraunkorra lortzeko eskura ditugun irtenbidea bilatzea.
Jarduera: Museoko erakusketa iraunkorrean barna egingen dugun bisita honetan baliabide natural nagusiak, gizakiok historian zehar horiez egin dituzten erabilerak, kutsadura-modu nagusiak eta garapen iraunkorra bultzatzeko eskura ditugun irtenbideak ezagutuko ditugu.





ARGIBIDEAK eta IZEN-EMATEAK

Astelehenetik ostiralera: 10:00-13:00 eta 17:30-20:00

Larunbatetan: 10:00-13:00. Igandeetan, itxita

**Bisitak eskatzeko: Ingurumen Heziketarako
Museoarekin harremanetan jarri**

sanpedrokoingurumen
heziketarakomuseoa

San Pedroko Monasterio Zaharra. Errotazarko kalea, zk.g.
31014 Iruña. Telefona: 948 14 98 04 - Faxe: 948 12 37 21

museoeducacionambiental@pamplona.es
www.museoambientalpamplona.com



Ayuntamiento de
Pamplona
Iruñeko Udala